



ETAPA	FITXA
2	



2. ETAPA: EPAIKETAK PRESTATZEA ETA ANTZEZTEA



HELBURUAK

- ✓ Ingurumen-aldaketarekin eta migrazioarekin lotutako egoera eta dilema errealak aurkeztea.
- ✓ Hainbat kasu aurkeztea, erakusteko komunitateek nola aurre egiten dioten ingurumen-aldaketari, horretarako dituzten (edo ez dituzten) **baliabideak** eta komunitate horientzat klima-aldaketak dituen ondorioak.
- ✓ Ulertzea ingurumen- eta klima-aldaketak era desberdinetan eragiten diela herrialde, komunitate eta pertsoneri, eta horren arabera populazio oso zaugarriak daudela.
- ✓ Aztertu ingurumen- eta klima-aldaketen aurrean dauden desberdinkeriak.
- ✓ **Enpatia** landu



3. FITXA: Kasu-azterketa



HELBURUAK

Ikasleei benetako egoerak aurkeztea ingurumen-aldaketarekin eta migrazioarekin zerikusia duten lurralde, testuinguru eta pertsonen kasuak aztertuz. Metodologia horrek lagundu egin beharko lieke ikasleei:

- ✓ Ulertzeko nola ingurumen- eta klima-aldaketak eragiten dien era desberdinetan herrialde, komunitate eta pertsona desberdinei, eta, beraz, populazio oso zaurgarriak daudela.
- ✓ Hainbat egoera eta adibide zehatz ezagutzeko, eta hobeto ulertzeko komunitate desberdinek ingurumen-aldaketari aurre nola egiten dioten, eta horretarako dituzten (edo ez dituzten) baliabideak eta komunitate horientzat dituen ondorioak.
- ✓ Enpatiaren trebetasun soziala garatzeko, hau da, beste pertsona baten lekuan jartzen jakiteko.

BEROTZE-JARDUERA



**BEROTZE-
JARDUERA**



**PROPOSATUTAKO
DENBORA**

7 minutu



**PROPOSATUTAKO
MATERIALAK**

- ✓ Taldeari Interneteko bideo bat erakusteko euskarria

URRATSAK



Mugetatik haratago, klima-aldaketaren mehatxua, orri honetan eskuragarri: <https://ejfoundation.org/films/p4> (Ingelesez)

Beste bideo bat gazteleraz [Cuando el cambio climático te obliga a emigrar](#).

JARDUERA NAGUSIA



JARDUERA NAGUSIA



PROPOSATUTAKO DENBORA

40 minutu



PROPOSATUTAKO MATERIALAK

- ✓ II. eranskinaren testua
- ✓ Interneteko sarbidea, taldean bideoak ikusteko (gutxienez 5)

URRATSAK



Ikasleak 5 taldetan banatuko dira. Talde bakoitzak jarraian aurkezten diren kasu-azterketa hauetako batean lan egingo du (ikus, halaber, II. eranskina). Ikasle bakoitzak bere irakurketa-materiala izango du. Irakurketa pertsonaleko denbora baten ondoren, taldea elkartu eta kasuaren laburpena prestatuko du, ikaskideen aurrean aurkezteko. Laburpen hori kartel batean jasoko da, aurkezpenari laguntzeko (15 minutu).

2

Talde bakoitzak prestatu duen kasua aurkeztuko die gainerako ikasleei. Talde bakoitzak gehienez ere 5 minutu izango ditu aurkezpena egiteko. Bitartean, ikasleek oharrak hartuko dituzte, kasu-azterketen arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruz (25 minutu).

Kasuak (ikus II. eranskina). Kasu-azterketak hauek dira

- Klima-aldaketa Artikoan eta sami kulturarentzako mehatxua
- Lurraren galera Bangladeshen
- Klima-aldaketak Sahel eskualdeko migratzaileen giza eskubideei eragiten die
- Afroamerikarrek eta emakume pobreek jasan zuten gehien Katrina urakana
- Basoko suteak Australian

ITXIERA



ITXIERA



PROPOSATUTAKO
DENBORA

10 minutu



PROPOSATUTAKO
MATERIALAK

- ✓ Karteletarako papera
- ✓ Koloretako errotuladoreak
- ✓ Idazteko bestelako tresnak

URRATSAK

1

Talde bakoitza berriro biltzen da 2 lan egiteko. Galdera honi erantzutea: Zer da justizia klimatikoa? Hona hemen bidea markatzeko galdera batzuk:

- Zer erronka nagusi planteatzen die klima-aldaketak komunitate ahulenei? Zein dira desafio horien kausak? Zer egoera iruditzen zaizkizu kezkarrienak eta zergatik?
- Zer papera jokatzen du kalteberatasunak/marjinaltasunak klima-aldaketan?
- Nola erakusten dute komunitate ahulek erresilientzia klima-aldaketaren aurrean?

- Nola definituko zenuke ingurumen- eta klima-arazoetako justizia?
- Zein dira migratzeko pertsonen erabakiari, aukerari eta borondateari eragiten dioten faktore garrantzitsuenak?
- Egoera horietako batean bazina, zein izango litzateke, zure ustez, emigratzeko faktore eragilerik garrantzitsuena?

2

Kasu-azterketen arteko antzekotasunak azalduko dituen posterra prestatzea.

Zer da justizia klimatikoa?

Klima-aldaketa berez arazo soziala da, eta edonoren eguneroko bizitza aldatu dezake, era askotara. Baina klimaren inpaktu guztiak ez dira berdinak, eta ez dira berdin banatzen. Muturreko klima, itsasoaren maila handitzea, eta beste hainbeste arazo tartean, klima-aldaketaren ondorioak proportziorik gabe jasan dituzte historikoki baztertutako komunitateetan.

«Justizia klimatikoa» esapide bat da, eta are mugimendu bat ere, aitortzen duena klima-aldaketak eragin desberdinak izan ditzakeela, gizarte, ekonomia, osasun publikoa eta bestelako arloetan, populazio baztertuetan. Justizia klimatikoa sustatzen dutenek ahaleginak egiten dituzte desberdintasun horiek zuzenean tratatu daitezen, epe luzerako arintze- eta egokitze-estrategien bidez.

DISHA Ravi ekintzaile indiarraren hitzetan: «Justizia klimatikoak sektore arteko berdintasunarekin du zerikusia. Kolektibo guztiekin guztiz inklusiboa izan behar du, guztiek aire garbia, janaria eta ura izan dezaten. Adiskide batek beti esaten duen bezala: “Justizia klimatikoa ez da aberatsentzat eta zurientzat bakarrik”. Desplazatutako pertsonen ondoan





egin beharreko borroka da; beren ibaiak pozoituta ikusi dituztenen ondoan; lurrak lapurtu zaizkien ondoan; beren etxeak behin eta berriro suntsituta ikusten dituztenen ondoan; eta oinarrizko giza eskubideen alde etengabe borrokatzen dutenen ondoan»



4. Fitxa: Dilemak



HELBURUAK

Ingurumen-aldaketarekin eta migrazioarekin lotutako egoera eta dilema errealak aurkeztea ikasleei. Metodologiak lagundu egin beharko lieke ikasleei honako helburuak lortzen:

- ✓ Enpatiaren gaitasun soziala garatzea, hau da, beste pertsona baten lekuan jartzen jakitea.
- ✓ Gatazkak, balio moralak eta beste balio batzuk ezagutzea.
- ✓ Iritzien kalitatea bereiztea (norberaren iritzien kontrakoak izan ala ez)
- ✓ Balioen inguruko arazoak eta arazo teknikoak bereiztea.
- ✓ Baloreak eta interesak bereiztea.
- ✓ Elkarrizketa erabiltzea gatazkak konpontzeko.
- ✓ Printzipio moralak eta orokortu ez daitezkeen giza balioak bereiztea.
- ✓ Norberaren balioen eskala ezagutzea eta haien artean hierarkia bat ezartzea.
- ✓ Gatazkei lotuta norberak dituen sentimenduak eta emozioak artikulatzea.

BEROTZE-JARDUERA



**BEROTZE-
JARDUERA**



**PROPOSATUTAKO
DENBORA**

6 minutu



**PROPOSATUTAKO
MATERIALAK**

✓ Taldeari
Interneteko
bideo bat
erakusteko
euskarria

URRATSAK



bideoa ikusi (33'29" minututik 39'25"-ra) ([ingelesez](#) eta [gaztelaniaz](#) eskuragarri dago)

JARDUERA NAGUSIA: BALIOAK ETA DILEMAK



**JARDUERA
NAGUSIA**



**PROPOSATUTAKO
DENBORA**

35 minutu



**PROPOSATUTAKO
MATERIALAK**

✓ **3. eranskineko
testuak**

URRATSAK

Dilema da bi alternatiba edo gehiagoren artean aukeraketa zaila egin behar izatea, bereziki emaitza ez-desiragarriak ekartzen badituzte. Dilema morala da bi ekintza-ereduren artean aukeratu behar izatea, bietako edozeinek dakarrenean ondo edo gaizki dagoenaz ditugun sinesmenak urratzea.wrong.

GARRANTZITSUA: Ondoren aipatzen diren kasuetan, balioak ez ezik, interesak ere identifikatu behar dira. Ideia ez da bi posizioak parez pare jartzea, baizik eta erakustea bat bestearen gainetik hautatzeak zerbait sakrifikatzea dakarrela..



Ikasleak lau taldetan banatuko dira (edo gehiagotan, irakasleek edo ikasleek dilema gehiago planteatu nahi badituzte). Talde bakoitzak ondorengo dilema hauetako bat landuko du. Dilema bakoitzak gutxienez bi alderdi, jarrera

edo aukera ditu. Talde bakoitza bitan banatuko da, «alderdi» bakoitzarekin identifikatutako «rol» bakoitzeko bana. Talde bakoitzak esleitu zaien rolaren interes, balio eta argudioei buruz lan egingo du (10 minutu).



b) Talde bakoitzak bi kide aukeratuko ditu («alderdi» bakoitzeko bat), aurretik egindako lanetan oinarritutako eztabaida bat egiteko, ikaskideen aurrean. Gainerako ikasleek arretaz jarraituko dute, eta parte-hartzaile bakoitzak dilema bakoitzean planteatutako balio eta interes nagusiei buruzko oharrak hartuko dituzte. Eztabaida rol-joko gisa egingo da (ikus III. eranskina).

Dilemak hauek dira (ikus III. eranskina dilema bakoitzaren edukia ezagutzeko):

- Isuriak murriztea eta ingurumenerako eskubidea
- Energia-trantsizioak eta sakrifizio-eremuak
- Migratzea edo ez migratzea kultura bat desagertzeko arriskuan dagoenean
- Arriskuan dauden bizibideak
- Errefuxiatu klimatikoak

Balioak definitzeko esan daiteke gizartean harmonia eta elkarbizitza errazten duten printzipioak edo arauak direla. Pertsona batek bere ingurunearekin interakzioa eta harremanak izateko dituen dohainen multzoa osatzen dute. Giza balioak balio etiko, moral edo sozialei dagozkie, ondo dagoenaren eta ez dagoenaren arteko aldea adierazten baitute.

Interesak aipatzean zerbaiten onura edo erabilgarritasuna adierazten ari gara. Testuinguru horretan, interes kontzeptua balio kontzeptua baino txikiagoa da. Batzuetan, gure interesak eta gure balioak desberdinak izan daitezke, eta are kontraesankorrek ere.

ITXIERA



ITXIERA



PROPOSATUTAKO
DENBORA

10 minutu



PROPOSATUTAKO
MATERIALAK

- ✓ Karteletarako papera
- ✓ Koloretako errotuladoreak
- ✓ Idazteko bestelako tresnak

URRATSAK



Talde bakoitzak zalantza moralaren alderdi bakoitzak identifikatutako interes, balio eta argudio nagusien laburpena egiten du. Talde bakoitzak aukeratu behar du zein den sinesgarriena beraientzat eta zergatik. Hori kartel batean jasoko da eta horman zintzilik jarriko da.